

PHISHING

Gure datu pertsonalak eta bankuko datuak lapurtzen saiatzen den iruzurra.

“Mezu elektronikoa bat jaso dut nire kontu korronteko datu pertsonalak eguneratzeko eskatuz, esteka batean klik eginda, baina nire bankuko URL helbidea ez da betiko berbera”.



Nola jokatzen dute sareko delitugileek?

- Mezu elektronikoa bat bidaltzen dute, bankukoa dela pentsatuta irekitzen duzuna.
- Webgune batean sartu eta bertan zure datu pertsonalak emateko eskatzen dizute.
- Webguneak egiazkoa ematen du, eta informazio dena ematen duzu.

Helburuak

- Sartzen dugun informazio pertsonalaz jabetzea.
- Sare sozialetan eta Interneteko beste gune batzuetan gure identitatea hartzea.
- Gure banku-informazioa lapurtzea, dirua lortzeko.



Phishing iruzurraren biktima ez izateko aholkuak

- Zuhur egon banku-erakundeetako edo zerbitzu ezagunetako mezuak diruditenen aurrean.
- Ez fidatu, bankuek ez dute inoiz datu pertsonalik eskatzen mezu elektronikoa bidez.
- Susmoa hartu testuan akats gramatikalik badago.
- “Bezero agurgarria”, “Jakinarazpena erabiltzaileei” edo “Lagun maitea” bezalako agur anonimoak jasotzen badituzu.
- Mezuak ordu gutxi batzuetan erabaki bat hartzera behartzen bazaitu, seinale txarra da.
- Baiezatu URL helbidearen egiazkotasuna.
- Ez sakatu estekan. Webgunera sartu nahi baduzu, sartu zuzeneko bilaketa baten bitartez.
- Ezabatu beti datuak eskatzen dizkizun edozein mezu.